

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**Aurrez aurreko
irakaskuntza jarduerak
online bilakatzeko gida
laburra
COVID-19 dela eta**

**Hezkuntza Laguntza Zerbitzua
(SAE-HELAZ)**

www.ehu.eus

- Hezkuntzarako plataforma birtuala, [eGela](http://egela.ehu.eus/), erabiltzea aholkatzen da, modu honetan datu pertsonalak babestuko direlako.
- Jarraian, gure plataformaren bitartez, aurrez aurreko irakaskuntza jarduerak modalitate birtualera egokitzeko aholku eta jarraibide batzuk azaltzen ditugu.



egela.ehu.eus/

Ohiko eskola magistralak ordeztu eta banakako lan txikiak gehitu.

Beren eskoletan power point aurkezpenak erabiltzen dituzten irakasleentzat GOMENDATUA

- **1. Aukera.** Diapositiba bakoitzean edukiaren idatzizko azalpenak dituen power point aberastua eman



Ohiko eskola magistralak ordeztu eta banakako lan txikiak gehitu.

Beren eskoletan **power point** aurkezpenak erabiltzen dituzten irakasleentzat GOMENDATUA

- **2. Aukera. Aurkezpena grabatu irakaslearen narrazioarekin.**



Adibidez, saioa ordubetekoa balitz:

- Saioa bi, hiru edo lau zatitan banatu, 30, 20 edo 15 minutukoak, gehienez.
- Zati bakoitzak **dokumentu edo bideo** bat izango du 5-10 minutukoa.
- Ondoren **test galdera batzuk** txertatuko dira ikasleek edukia ulertu dutela ziurtatzeko (ez ebaluatzeko)
- Azkenik **jarduera labur** bat proposatuko da. Testak eta jarduerak orotara ez dute 10-20 minutu baino gehiago iraungo.



Dokumentu edo bideoa

Testa


Jarduera laburra

Testuliburuak gaitegia lantzeko erabiltzen dituzten irakasgaietarako GOMENDATUA, irakasleak aurkezpenik erabiltzen ez duenean.

NOLA ERALDATU ESKOLA-SAIOA?

Jarduera blokeak sortu, atal hauek dituztela:

1. 10 minutu inguruko irakurketa bat
2. Irakurketa indartzeko jarduera osagarri bat, adibidez, ikasle bakoitzak testuaren zati bat osatzen duen webgune bat bilatzea eta zertan osatzen duen azaltzea.



3. Testu osotuari buruazko test bat, ikasketa gertatu dela egiaztatzeko. Ebaluazioa hezigarria edo diagnostikoa izango litzateke.
4. Test hori egiteko erabil daiteke:
 - eGelako galdetegiak
 - Socrative programa
 - Perusall ere oso tresna interesgarria da
5. KASU GUZTIETAN ikasleek galderak egin ahal ditzaten foro bat jartzea komenigarria da.

[EgeLAKO GALDETEGI ETA GALDERA BANKUA eGela v2.7 \(pdf ,2,66 Mb\)](#)



<https://www.youtube.com/watch?v=3bWpLUGS4v0>




<https://socrative.com/>



<https://perusall.com/>

- **EZ DA KOMENI saio osoa** grabatzea ikasleek bere osotasunean eta kolpe batean ikus dezaten. Horrela eginez gero, ez da ikasleen arreta mantenduko eta ikaskuntza zailagoa izango da.
- **Ez da beharrezkoa** irakaslearen irudia grabatzea, ikasleek ezagutzen baitute.
- **eGelan txertaturiko Blackboard Collaborate** baliabideak grabaketak egitea ahalbidetzen du, ppt aurkezpenak aldiberean partekatzen direlarik.



- Bideoa eGelan txertatu, **sekuentzia didaktiko** bat osatuz (bideoa-testa-jarduera) eta **foro** bat ikasleek galderak egin ditzaten
- Beste "screencast" tresna batzuk erabil daitezke grabaketak egiteko (bideotutorialak, ordenagailuaren pantailaren grabaketak). Erabiltzen errazak dira eta batzuk doainekoak
- Screen cast-O-matic tresnarekin adibidez, power pointean oharrak txerta daitezke



"screencast" tresnak

Screen cast-O-matic

<https://screencast-o-matic.com/>

https://www.youtube.com/watch?v=7JliqvIPS_H8

Windows movie maker

Camtasia

Bideoen gaineko galderak egiteko bi modu ditugu:

1. Bideoan bertan galderak txertatu
Edpuzzle tresnarekin
2. Galderak bideotik kanpo egin:
 - eGelako galdetegia erabiliz
 - Beste tresna batzuen bitartez, adibidez, Socrative

Tresna hauek ikasleei **feedback*** ematea ahalbidetzen dute



<https://edpuzzle.com/>

Edpuzzle tutoriala:
Bideoikasgaiak sortu
eta editatu

<https://www.youtube.com/watch?v=MGNkVRJxKUU>

*Beste baliabide batzuk erabiltzen badira, ikasleei erantzun egokiak ematea aholkatzen da, beren **autoebaluazioa** egin dezaten

1 **Ikasleak taldekatu**



2 **Taldeak eGelan sortu**



3 **Koordinatzailea** hautatu



4 **Arduren taula** bat sortu



5 Egin beharreko lanak **esleitu**



6 **Jarraipena eta bilera birtualak**



7 **Emaitzak**



1 **Ikasleak taldekatzea:**

Irakasleak egin dezake, edo ikasleek beren kabuz. Epemuga bat zehaztu behar da, eta ikasleek ez badituzte ordurako egiten, irakasleak egingo ditu

2 **Taldeak eGelan sortzea:**

Oso garrantzitsua, talde bakoitzari mezu edo zeregin espezifikoak ezartzea ahalbidetuko du, eta eGelan begi bistaz identifikatzea. Ebaluazioa ere erraztuko du.

<https://www.ehu.eus/eu/web/ecampus/erabiltzaileen-kudeaketarako-tresnak/taldeak-eta-taldekatzeak>

3 **Koordinatzailea** hautatzea

Foro bat zabaltzen da taldeak azaldezan nor izan behar den koordinatzailea

4 **Arduren taula** bat sortzea

Elkarlanean egiten da eta denen, ikasle eta irakasle, bistara ipintzen da Taldekide bakoitzaren zereginak adierazi behar dira

Taldeak kudeatzea

REA Cuarto de Primaria
PROYECTO EDIA

cedec CONSEJO REGULADOR DE EDUCACIÓN DE ESPAÑA

TABLA DE REGISTRO ROLES Y FUNCIONES DE LOS MIEMBROS DE UN EQUIPO

NOMBRE	FUNCIÓN	TAREAS	EVALUACIÓN
	Coordinador/a	Organiza el trabajo del equipo. Anima a los miembros del grupo a avanzar en su aprendizaje. Controla el tono de voz. Procura que no se pierda el tiempo. Dirige las revisiones periódicas del equipo. Determina quien debe hacerse cargo de las tareas de algún miembro del equipo que esté ausente. Tiene clara la tarea a realizar. Controla que todos/as aprendan	
	Ayudante del coordinador/a	Sustituye al coordinador. Controla el tono de voz y el orden. Procura que no se pierda el tiempo. Asegura la entrega en plazo de los trabajos. Recuerda la funciones a cada uno. Supervisa al coordinador.	
	Secretario/a	Recuerda de vez en cuando, a cada uno, los compromisos personales y, a todo el equipo, los objetivos de equipo. De vez en cuando, actúa de observador y anota, en una tabla en la que constan las tareas de cada cargo del equipo, la frecuencia con que éste las ejerce. Organiza las carpetas digitales del equipo en Doogle Drive.	
	Responsable del material	Custodia el material común del equipo y cuida de él. Se asegura que todos los miembros del equipo mantengan limpia su zona de trabajo. Aporta el material común y se asegura de que todos lo aporten.	
	Portavoz	Representar al equipo ante la clase y el / la docente. Exponer los problemas y dudas al equipo. Exponer los trabajos y tareas del grupo.	



5 Egin beharreko **lanak esleitzea**

- Azalpeneko eskolekin konbina daiteke, hau da, irakurgai edo bideoetan azaldutako kontzeptuetan oinarritzen den lana izan daiteke.
- Irakasleak proposa ditzake lanak eta lan motak edo ikasleek hauta ditzakete
 - **Mikro-proiektuak** (ikusirik ERAGIN esperientziak IKD baliabideetan)
 - **Problema** ebaztea
 - **Kasuak** aztertzea
 - **Simulazioak** egitea
 - **Ikerketa** lan laburrak burutzea

6 Jarraipena eta bilera birtualak

- Taldekide bakoitzak foroko hari bat erabiliko du, egunkari gisara, eta bertan emandako urratsak adieraziko ditu
- Bi edo hiru egunero persona bakoitzak burututakoa laburbilduko da. Taldea da laburpena egitearen arduradun, rola esleituz. Rola txandaka aldatuz joango dira
- Irakasleekin bilerak egin ditzakete **Blackboard Collaborate** bitartez



Bilera birtualak
Blackboard Collaborate
EHU bitartez

<https://www.ehu.eus/eu/web/ecampus/bbc>

7 Emaidzak

- **Banakakoak:** Taldekide bakoitzaren lana foroko bere harian islatuta geratu da.
- **Taldekoak:** Arduren taula eta bere jarraipena laburpenetan
- Emaidza. **Lanaren azken entregagaia**
- Onlineko aurkezpen bat eska daiteke, mugikorrarekin grabatutako bideo bat, adibidez, nahi izanez gero.



<https://es.padlet.com/>

Aholkatzen da, irakasleek lanen emaitza guztiak ikasleentzat eskuragarri jar ditzaten onlineko espazio partekatu batean. eGela bera erabil daiteke edo **Padlet** tresna